



**Arartekoaren ebazpena, abenduaren 15ekoa, Zamudioko Udalari egina. Horren bidez, gomendatzen zaio udalerriko ostalaritza establezimenduari indarrean dagoen araudiak ezarritakoa bete dezala eskatzeko.**

### Aurrekariak

1. Zamudioko auzotar batek erakunde honetara jo zuen bere etxebizitzan jasaten zituen kalte larriak salatzen. Kalte horiek bere bizilekuaren etxabea dagoen (.....) tabernako irregulartasunen ondorioz jasaten ditu.

Hain zuzen ere, interesdunak adierazi du jarduera horrek 40 urte baino gehiago igaro dituela baldintza berekin funtzionatzen eta horrek inguruko bizilagunei zarata eragozpen larriak eragiten dizkiela.

Era berean, adierazi du hainbatetan Zamudioko Udalarengana jo zuela lokalean neurketak egin zitzatela eskatuz, baina ez duela erantzun egokirik jaso. Horrez gain, adierazi zioten ez zutela proba horiek egiteko baliabide teknikorik eta eragozpenak sortzen zirenean, jardueraren jabearekin harremanetan jartzen saiatzeko.

2. Kexagileak helarazitako gogoetak egiaztatzeko helburuarekin, erakunde honek zegokion administrazioari informazioa eskatu zion bidezko funtzionamendu lizentzien inguruan, baita tokiko erakunde horrek garatu zituen ikerketa eta zehapen jardueren inguruan ere.

Jaso ditugun udal agirietan alderdi hauek egiaztatu ditugu:

- Tabernaren funtzionamendua 1960an baimendu zen, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudia onartu baino lehen. Horregatik, ez zen inolako neurri gehigarririk hartzea eskatu funtzionamenduak sor zitzakeen eragozpenak ekiditeko.
- 2003an, inguruko establezimendu guztiak (tabernak, jatetxeak eta hotelak) araupetzeko asmoz, udalerriko lokal guztiei eskatu zitzaizkien beren jardueraren baimenak eta sailkapena udalari aurkeztea (Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Ordezkaritzan eskatu beharreko agiriak).

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Ordezkaritzaren ziurtagiriak egiaztatzen du jarduerak taberna gisa funtzionatzeko behar den baimena duela. Hala ere, ikusi dugu lokalaren egungo titularra ez dela funtzionatzeko baimena jaso zuen pertsona bera. Horrenbestez, ondoriozta daiteke, gutxienez titulartasun aldaketa bat egon dela, baina ez dakigu hori noiz izan zen.





- Jarduerak eragindako eragozpenen gainean, aipatzen da, jasotako salaketan aurrean, 2009ko martxoaren 25eko alkatetza dekretuaren bidez establezimenduari eskatu zitzaiola, gutxienez, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan ezarritakora mugatu behar zuela. Dekretu horrek, hiri lurzoruko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko arau tekniko orokorrak erregulatzen ditu.

Gainera, ebazpen horretan honakoa esaten zen: *“Kasu honi aplikatu beharreko araudiari dagokionez, lehen aipatutakoaz gainera, argitu beharra dago irekitzeko lizentzia eman zenean artean ez zegoela indarrean jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen araudia, eta, ondorioz, bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera ezarri behar izan zirela araudi horretan erregulatzen diren beharrezko elementu zuzentzaileak.*

*Neurri zuzentzaileok araudi horren arabera (jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen araudia aplikatzeko jarraibide osagarriak ezartzen dituen 1963ko martxoaren 15 M.A.n ezarritako epean) ezarri ez zirenez, ulertu beharra dago Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea bete-betean aplikatu behar dela: beraz, horrek esan nahi du aipatu den jarduera legezatu egin behar dela, posilbe bada”*

- Azkenik, ebazpenean bertan adierazten zen toki erakundeak ez duela bitarteko tekniko eta ez giza baliabide nahikorik udalerriko jarduera horietan “kontrol zehatza” burutzeko, ezta lan horiek burutzeko gai diren pertsonak ere. Nolanahi ere, interesdunak eskatutako neurketak burutzeko ENAC ziurtagiria duen laborategi baten zerbitzua kontratatze aukera aipatzen zuen.
3. Hala ere, ebazpen horrez gain, toki erakundeak ez du beste informazio gehigarririk eman neurketa hori burutu ote den jakinarazteko edo, gutxienez, jardueraren titularrari ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan xedatutakoa betetzeko eskatu zaiola adierazteko. Horregatik, eta erreklamatzailerak geroztik egin dituen salaketak aintzat hartuta, nahikoa zantzu dugu, lokalak orain arte izan dituen baldintza berekin funtzionatzen duela pentsatzeko.

### Gogoetak

1. Esku artean dugun informazioa ikusirik, erakunde honek adierazi nahi du jarduera sailkatuak kontrolatu eta ingurumen alorreko legedira egokitzen direla bermatzearen esku hartzeko herri administrazioek duten betebeharra ez dela aukerazkoa, baizik eta, ordenamendu juridikoak interes orokorra defendatzeko ematen dizkien ahalmen publikoak gauzatzean datza.





Jarduera-lizentziek lotura iraunkorra sortzen dute eta horren helburua interes publikoa babestea da, baimendutako jarduera garatzeak eragin litzakeen gertakarien aurrean.

Ildo horretatik, garbi geratu behar du jarduera beti interes publikoaren eskakizunetara egokituta egon behar izatearen baldintza inplizituaren pean dagoela.

2. Exijentzia horiek Administrazioari ahalmena ematen diote proportzionaltasun egokiaz baimendutako jardueran esku hartzeko, eskubide hori gauzatzen dutenei ofizioz ere jardueraren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko neurri zuzentzaile eta egokitzzaileak ezarriz, eta, interes publikoko exigentzietara egokitzeko aukera guztiak agortu badira, emandako baimena baliogabetzeko; izan ere, hala egin ezean, alde batera uzten ariko litzateke zaintza, segurtasun, komenigarritasun eta ordena publikoko betebeharrak nagusiak.

Udalerriek, funtzionamendurako derrigorrezko baimena emateaz gain, jardueren funtzionamenduaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola egiteaz arduratu behar dute; udalek nahitaez eskaini behar dute zerbitzu hau, izan ere, jarduerak sortzen dituzten eragozpenek kaltetutako herritarrentzat oso garrantzitsua da, beren bizi kalitatean baitute eragina.

3. Gure gomendio orokorretan behin eta berriro aipatu dugun moduan, ezinbestekoa da herri administrazioak, instalazio mota horiek ikuskatu eta kontrolatzen dituen erakundea den aldetik, jarrera irmoa hartzea eta ahalegina egitea beharrezkoak diren ikuskapenak eta probak burutzeko behar diren bitarteko teknikoak eskuratzeko, prestatutako langileak izateko, beharrezko ezaugarriak dituzten ekipamenduko material egokiak izateko eta beharrezkoak liratekeen kontrol bisitaldiak egiteko prestatuta dauden langileak edukitzeko.

Udaletxeak ez badu bitarteko nahikorik dagokion neurketa egiteko, Bizkaiko Foru Aldundira jo ahal izango du, bertako zerbitzuek proba hori egiteko. Edo bestela, zerbitzu hori zeharka eman ahal izango du, arloan espezializatuta dagoen enpresa batekin zerbitzuen errentamendu kontratua eginda, ebazpenak berak aipatzen duenari jarraiki.

4. Kasu honetan dauden gertaerak ikusirik, funtsezkoa da kontuan hartzea era honetako instalazioek, beren jarduera ez badago teknikoki eta juridikoki behar bezala araututa, gatazka larria eragin dezaketela (eta eragin ere, eragiten dutela) ostalaritza establezimenduen titularrek dituzten interes partikularren eta interes publiko orokorraren artean. Izan ere, instalazio horietatik gertu bizi diren auzotarrek intimitaterako eta segurtasunerako beren eskubideak bermatu nahi dituzte, ezin onar baitaiteke jarduera horien funtzionamenduak sortutako eragozpenek hauen lasaitasuna asaldatzea.

Hortaz, udalak emandako agirietan ikusten den moduan, abenduaren 30eko 2.414/1961 Dekretuak onartutako Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri





eta Arriskutsuen Araudia bera, sailkatutako jardueren funtzionamenduaren eraginpeko interes kontrajarriak batzen saiatu zen, jarduera horien ezarpena MINP jarduera-espeditzearen izapideak egitearen eta murrizketa batzuk hartzearen menpe jarri, sor litezkeen kalteak saihesteko.

Bigarren xedapen iragankorrak hauxe dio: *“quienes a la fecha de la publicación de este Reglamento vinieren ejerciendo actividades de las incluidas en el artículo 3º del mismo con la debida autorización de la Autoridad municipal, serán respetados en sus derechos adquiridos, sin perjuicio de la obligación que les incumbe de establecer los elementos correctores necesarios que se regulan en este Reglamento”.*

Baimena eman ondoren onartutako arau teknikoetan ezarritako neurri zuzentzaileak instalazioaren funtzionamenduan jarduerari ezartzeko betebeharrak hori 171/1985 Dekretuak ere jaso du, eta honela dio, berariaz, lehenengo xedapenak iragankorrak:

*“Dekreto honen eraginpean gelditu daitezten iharduneango ekintzapideek sei hilabeteko epea izango dute eraikuntzen egitura-aldakuntzarik ekar ez dezaten onbideratze-neurriak egiteratzeko. Eraikuntzen egokitze-aldaketa ekar dezaten onbideratze-neurriak egiteratzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedinetik hasi eta hamabi hilabeteko epea izango dute.*

*(...)*

*Hala ere, jaurgoduna aldatzea edo ekintzapidea haundiagotzea edo aldatzea gertatuz gero, teknikazko arau hauetan esaten diren onbideratze-neurriak egiteratu-araziko zaizkio.”*

Aitzitik, esku artean dugun agirietan ildo horretan udalak egindako jarduera bat agertzen da eta baita martxoaren 25eko alkatetza dekretu bidez egindako errekerimendua ere. Honek adierazten du aipatutako jarduerak, dekretu horretan ezarritako parametroekin bat etorri behar lukeela.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, 64. artikulua bidez, tokiko administrazioei ematen dizkie instalazio lizentzian ezarri diren edo, hala badagokio, jardueraren titularrak aurkeztutako eguneratze proiektuari dagokionez, gero ezar daitezkeen neurri zuzentzaileak kontrolatu eta ikuskatzeko eginkizunak, 6 hilabetetik gorakoa ez den epean.

Hala ere, azkeneko alkatetza dekretutik gaiari buruz berririk eman gabe epe hori sobera igarota eta inguruko auzotarrek geroztik egindako salaketan arabera, ez dirudi Zamudioko Udalak aurretik azaldutakoa bete zuenik. Era berean, ez dirudi udal horrek titularrari eskatu zionik 171/1985 Dekretuan ezarritako neurri zuzentzaileak hartzeari buruzko eguneratze proiektua aurkezteko, batez ere lokalari isolamendu akustiko egokia jartzeko neurri zuzentzaileei buruzkoa. Hori





guztia, inguruan bizi diren pertsonen jasaten dituzten zarata eragozpenak gutxitzeko helburuarekin.

6. Ez dugu ahaztu behar, justizi auzitegien azken erabakiekin bat etorritik (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 29ko 119/2001 epaia), etxebizitzetako inmisio akustiko gogaikarriek urratu egin ditzaketela EKren 15, 18.1 eta 18.2 artikulua; hau da, bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (15. art.), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1 art.) eta egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidea (18.2 art.).

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak, 2004ko azaroaren 16ko epaian (Gaia: Moreno Gomez C, Espainia), pertsonen beren etxebizitza eta bizitza pribatua errespetatu daitezkeen duten eskubidea urratu zela jasotzen da –udal administrazioak zaraten inguruko araudia behin eta berriro ez betetzea onartu zuen kasu batean–, horrela, Giza Eskubideak eta Oinarriko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean jasotako 8. artikulua urratuz.

7. Esku artean ditugun datuen arabera, Arartekoak ondorioztatu du udalak ez dituela bere ikuskapen eta isun eskumenak burutu, ordenamendu juridikoa betearazteko eta guztien interesak babesteko garaian. Are gehiago, deskribatutako inguruabarrei jaramon eginez, gero eta garbiago ikusten dugu, Udalak ezer ez egitearen ondorioz, benetako kalteak eragiten ari zaizkiela inguruko auzotarrei eta, bereziki, kexagileari.

Horregatik guztiatik, udalak, ingurumen araudian ezarritako lege zehaztapenak bete daitezkeen eskatu behar du. Alde horretatik, toki administrazioek ezin dute ahalbidetu jarduerak duela 40 urte baino gehiago zeuzkan baldintza berekin funtzionatzen jarrai dezala, ezarritako parametroetara egokitu gabe. Horrez gain, ezin du espedientearen denbora luzatu, jardunaren sustatzaileak jarduera legeriari egokituko diolako itxaropena edo, hala bada, jarduera itxiko delakoa oinarri hartuta.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**20/2009 GOMENDIOA, abenduaren 15koa, Zamudioko Udaleri egina, honetarako:**

Bidezko neurketak egin ditzala aipatutako jarduerak zer isolamendu akustiko duen zehazteko eta, orobat, jarduerak erabateko errendimendua lortzen duenean establezimenduaren gaineko etxebizitzan zer inmisio maila erregistratzen den ikusteko –gauz egin behar bada ere–.

Horrez gain, eta eskuratutako emaitzak oinarri hartuta, toki erakundeak indarrean dagoen legezko araudian ezarritakoa bete dadila eska dezala, zehazki ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuko I. kapitulua. Horren bidez onartzen dira





bizilekuetarako hiri lurzoruan ezarri beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko arau tekniko orokorrak.

Behin-behineko neurri gisa, lokalean dauden telebista, musika aparatu eta abar berehala kendu beharko dira.

